

**ODOLEAN DARAMAGU (LITERATURIA 2015eko spoterako gidoia)**

1/ BELTZEAN ZITA HAU AGERTUKO DA:

“nire bizitza, hein handi batean, besteen bizitza baita” Pablo Sastre

2/ ETXEKO ESTUDIO-LIBURUTEGI BAT / BARRUALDEA / EGUNA

Idazle bat idazmakinaren orri zuriaren aurrean, ez aurrera ez atzera, ezin bi hitz jarraian idatzi. Esaldi bat idatzi. Papera hartu eta puskatu. Zakarrontzira bota. Beste papera sartu.

3/ ETXEKO HALL-A / BARRUALDEA / EGUNA

Idazleak giltzak hartzen ditu hall-eko mahaitik eta atea ixten du

4/ KALEA / KANPOALDEA / EGUNA

Idazlea kalean paseoan. Bikote bat ikusten du taberna baten kanpoaldean ardo bat hartzen. Haiei jarraituko die, eta zein ezkaratzetan sartzen diren ikusiko du. Koadrila bat barrez eta elkarrizketan harago, haietako bati etxeraino segituko dio. Gizon zahar bat, txikitero bat, taberna batera sartzen. Ateratzean, gaua da jada, eta mozkortuta dagoela nabarituko dugu nabarmen.

5/ KALEA / KANPOALDEA / GAUA

Idazlea kalean harrapatuko du gauak. Zeruan ilargi betea. Ahoan, letagin zuri zorrotzak azalduko zaizkio. Ez dabil inor kalean. Gau gaua da. Lehen ikusitako etxeetara bideratzen da. Ezkatzeetan sartzen ikusten ditu.

6/ ETXEEN ATEEN AURREAN / BARRUALDEA / GAUA

Eskua sarrailan jartze hutsarekin ateak irekiko ditu (3 etxetako hiru sarrailak). Banan-banan sartuko dizkie letaginak lehen ikusitakoei (hiru etxeko hiruna ohatzetan). Etxeetan bere urrats isilak segituko ditugu. Inork ikusia ez izateko bere keinu sotilak: paretaren kontra arrastaka. Esku leun bat ate bat irekitzen...

7/ KALEA / KANPOALDEA / GAUA

Korrika etxera bueltan doa idazle-banpiroa. Bat-batean norbait somatzen du, eta paretaren kontra ezkututzen da. Bere aurpegi odolean zipriztindua ikusten dugu, urrats batzuk inguruan. Badoa berriz korrika.

8/ ETXEKO ESTUDIO-LIBURUTEGIA / BARRUALDEA / GAUA

Idazmakinaren teklak gogor sakatuz, jo eta ke idazten ari da idazle banpiroa. Orriaren atzean bere perfila ikus dezakegu hasieran, eta pixkanaka orria beherantz doan heinean, bere ezpain odoleztatuak eta bere ero aurpegia.

9/ GAROA KANPOALDEA & BARRUALDEA / EGUNA

jende pila bat, ilara handian, tartean aurreko hiruak, eta eskaparatean liburu bakar bat: “odolean daramat”. Jendearen komentarioak: oso liburu intimoa omen da, bere onena eman duela irakurri dut,

autofikzioa egin duela esan du, baina bere bizitza besterik ez omen du kontatzen, irakurtzeko irrikitan nago, ni ere bai.... Kanpotik barrurako ibilbidean, ilarari segika doa kamera, harik eta aulki batean eserita dagoen idazle banpirora iristen den arte. Azken unean, idazleak kamerari begiratzen dio, eta irribarre zinez maliziotsua egiten du.

11/ PANTAILA BELTZA

beltzetik hitz hauek

ODOLEAN DARAMAGU

eta gero:

LITERATURIA 2015  
MAIATZAREN 29tik 31ra  
ZARAUTZEN.